

@@@EDIKTUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2010eko uztailaren 20ko Ebazpena jakinarazteko dena. Ebazpen horren bidez, ezetsi egiten da XXXXXXXXXXXXXXX-k —XXXXXXXXXXXXXXXX ren izenean eta ordezkarietan— jarritako gora jotzeko errekurtoa.@@@

Idazpuruan aipatutako ebazpena —2010eko uztailaren 20koa— ezin izan zaio XXXXXXXXXXXXXXX-ri jakinarazi, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik. Beraz, ediktu hau argitaratuz egiten da jakinarazpena, hala xedatzen baitu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua. Ediktu honen bidez, XXXXXXXXXXXXXXX-ri —edo horren ordezkariari— dei egiten zaio, Gasteizko Donostia kaleko 1 zenbakian ager dadin. 15 egun izango ditu horretarako, ediktu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (ordutegia: 8:00-14:30).

XXXXXXXXXXXX non dagoen ez dakigunez, hari jakinarazteko ematen da ediktu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 6a.

Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,  
ANA ISABEL CARO MUÑOZ.